

## **Irujo, ministro**

*Egunkaria*, 1993-07-20: 2.

Bidagurutze politiko honetan zai dago herria, ea EAJ/PNVri Gobernu Espainola eskeintzen ari zaion ministeritza hartzeko tentazioan eroriko den ala ez. Eta hemen, justifikazio bila, Manuel Irujoren 1936ko jokabidea aipatzen dute. Hemen oharpen bat: bi ekintza berdin zirkunstantzia arras ezberdinetan ezin dira metro berdinarekin neurtu. Orain bizi duguna irakurleak ondo ezagutzen duenez, goazen gerrateko baldintza nagusi batzuk laburki aipatzera: 1. Eskuinaren gobernu gaizto baten hurren irabazi zituen 1936ko otsailean Estatuko hauteskundeak ezkerreko Frente batek, eta EAJ/PNV bakarrik joan bazen ere honengatik jaso zuen Estatutuaren agintzaria. 2. Bost hilabete gero orain 57 urte lehertu zuen armadak altxamenduaren bonba izugarria Italiako faszismoaren eta Alemaniako nazismoaren konplizitatearekin. 3. Hemengo ezker espainolistak eta orduko EAJ/PNVk elkartu egin behar izan zuten faszismoari aurre egiteko. 4. Armak behar baigenituen, eta geuk Bilbo eta Donostiako kuartelak hartuz gero Madrileko diruaz, ezinbestean, erosi ziren Gernikako Jaurlaritza zinatzen ari zela, urrian. Lezo Urreztietak sartutakoak. 5. Baldintza hauek lortzeko, hitzarmen bat behar zuten Madrilen euskaldunokin, eta Irujo izan zen hautatua. Francopcan borrokarik gabe erori ala Madrilen borroka amankomunean faszismoari aurre egitea zen aukera. Eta munduaren harridura eta mirespenaren aurrean. hemen oinarritu zen geure kredibilitatea, bete egin zen. Ez zen merkea izan. halere bukatzen joan zaizkigu Francoren ostean, eta ezker espainola dela kausa, geure bigarren Estatutuaren mamia eta herri bezala Europako askatasun bidea.